



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2017KO MARTXOAREN 8KO EZ OHIKO UDALBATZA

NOIZ: 2017ko martxoaren 8an, goizeko 9:15etan

NON: Ikaztegietakoko Udaletxeko Areto Nagusian

BERTARATUAK: Alkatea: Bakarne Otegui Jauregui (EH BILDU)

Zinegotziak:

Miren Josune Mendizabal Macazaga (EH BILDU)

Xabat Ibarguren Lazkano (EH BILDU)

Idazkaria: Jose Mari Saiz Pagoaga.

BERTARATU EZ DIRENAK:

Igor Urreta Garayalde (EH BILDU)

Patxi Ulanga Mujika (EAJ-PNV)

Maria Belen Plaza Malaxetxebarria (EAJ-PNV)

Imanol Ormazabal Arin (EAJ-PNV)

AZTERGAIAK:

1.- Ikaztegietakoko 01 poligonoko 67 lursailean kokatzen diren 14 baratza ekologiko publikoen berrakuratze kontratu pribatuen esleipena arautuko duen baldintza administratibo partikularren agiria onartzea.



2.- Mozioa.

3.-Mozioa

4.- Mozioa

- **ESAN EGINAK ETA ERABAKIAK:**

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, Alkateak bilkura irekitzat ematen du.

Bestalde Udalbatzak aho batez berretsi egiten du gai ordena eta gai ordenetik kanpo dagoen Altsasurekin Elkartasunaren aurrean hartu beharreko erabaki-mozio baten urgentzia aho batez aitortu ondoren akordioa bozkatzea erabakitzen du.

1.- IKAZTEGIETAKO 01 POLIGONOKO 67 LURSAILEAN KOKATZEN DIREN 14 BARATZA EKOLOGIKO PUBLIKOEN BERRAKURATZE KONTRATU PRIBATUEN ESLEIPENA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA ONARTZEA.

Udalbatzara ekarri dira Ikaztegieta 01 poligonoko 67 lursailean kokatzen diren 14 baratza ekologiko publikoen berrakuratze kontratu pribatuen esleipena arautuko duen baldintza administratibo partikularren agiria onartuak izateko eta bide batez 14 baratzen esleipen prozedura abian jartzeko.

Gaia eztabaidatu eta bozkatu egin da eta bertaratutako zinegotziek aho batez ondorengoa erabaki dute:

LEHENA: Onartzea Ikaztegieta 01 poligonoko 67 lursailean kokatzen diren 14 baratza ekologiko publikoen berrakuratze kontratu



pribatuen esleipena arautuko duen baldintza administratibo partikularren agiria eta espediente administratiboa.

BIGARRENA: Abian jartzea 14 baratzen esleipen prozedura.

2.- MOZIOA: EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNEKO ADIERAZPENA

Miren Mendizal Macazaga zinegotziak, “Emakumeen Nazioarteko Eguneko Adierazpena” ren mozioa aurkezten du.

Ondoren testuaren onespena botoetara jartzen da, botazioak honako emaitza aurkezten du:

-Mozioa: aldeko 3 boto.

Horrenbestez bertaratutako zinegotziek aho batez honakoa erabakitzen dute:

BAKARRA: Onartzea ondorengo “Emakumeen Nazioarteko Eguneko Adierazpena” ren mozioa.

“ Emakume gutxi daude ordezkaturata udal mailan erabakiak hartzeko guneetan, eta tokiko politikan sartzeko eta berdintasunezko parte-hartzerako arazo espezifikoei aurre egin behar izaten diete” . Hori jaso zuen Inger Lingek1 Europako Kontseiluko Toki eta Eskualdeko Agintarien Kongresuaren 31. saioan aurkeztutako txostenean. Kongresua urriaren 20an egin zen, eta emakumeen tokiko eta eskualdeko parte-hartze eta ordezkartza politikoari buruzkoa izan zen.

Erabakiak hartzeko guneetan emakume eta gizonen arteko parte-hartze orekatua edozein gizarte demokratikoren aurretiko baldintza da. Emakumeek eta gizek tokian tokiko bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutunean horrelaxe baieztatzen da, eta tokiko gobernuari honakoa eskatzen zaie: beharrezko neurriak eta strategiak hartzea, emakume eta gizonen ordezkartza eta parte-hartze orekatua sustatzeko erabakiak hartzen diren tokiko esparru guztietan.



Neurri horien artean, Eusko Legebiltzarrak onartutako Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legearen 23. artikulua xedatzen duenez, “ euskal herri-aginte guztiek, beren zuzendaritza-organotako eta organo kolegiatuetoako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoan artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte” . Aipatutako Lege horretan, profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakunde zuzendaritzako organoetan emakume eta gizonen presentzia orekatuari buruz hitz egiten da. Horretarako, zuzendaritzako organoetan emakumeen presentzia areagotzea ahalbidetzen duten neurrien arabera dagozkien diru-laguntzak egokitu ahal izango dituzte, eta ezin izango diete inolako laguntzarik eman hautaketa-prozesuan edo lan-jardunean sexua dela-eta bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei.

Udalgintzan, EAEko udaletako %24,7an soilik daude emakume alkateak, eta euskal herritarren %18,82 ordezkatzeko dute. 2015ean, alderdi politikoen %32,58an soilik aukeratu zituzten emakumeak hauteskunde-zerrendako zerrendaburu, eta, iraunkortasunari dagokionez, emakumeek abiadura motelagoan igo ohi dira mailaz, baita lidergoan denbora gutxiago iraun ere.

Euskadin gehiengoak dute sindikatuen artean, batean soilik dago emakume bat Idazkari Nagusi; era berean, Euskadin egoitza dute erakunde finantzarioetako batean ere ez dago emakumezko lehendakariarik, eta erabakitze organo garrantzitsuetan %22,6 soilik dira emakumeak.

Elkarteetako emakume eta gizonen parte-hartzeari buruzko ehunekoei dagokionez, generoko ezberdintasun nabaririk izan ez arren, tradizioz rol femeninoa dute elkarteetan gehiago dira emakumeak: hezkuntza, erlijio, garapenerako lankidetzak eta gizarte-laguntzako elkarteetan. Kirol,



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2017KO MARTXOAREN 8KO EZ OHIKO UDALBATZA

politika, sindikatu, lanbide, arte eta herritarren esparruko elkarteetan, aldiz, nagusitasun txikiagoa dute.

Bestalde, emakumeen elkarteek, oro har, aurrekontu eta eragin-gaitasun mugatua izanohi dute udal politiketan.”

3.- MOZIOA: TOLOSALDEAKO GILTZARRIA, MARTXOAREN 19KO GALDEKETA

Bakarne Otegui Jauregui Alkateak, “TOLOSALDEAKO GILTZARRIA, MARTXOAREN 19KO GALDEKETA”ren mozioa aurkezten du.

Ondoren testuaren onespena botoetara jartzen da, botazioak honako emaitza aurkezten du:

-Mozioa: aldeko 3 boto.

Horrenbestez bertaratutako zinegotziek aho batez honakoa erabakitzen dute:

BAKARRA: Onartzea ondorengo “TOLOSALDEAKO GILTZARRIA, MARTXOAREN 19KO GALDEKETA”ren mozioa.

“ Tolosaldeko Giltzarria herritar dinamika da, Tolosaldeko Gure Esku Dagoren enbor beretik sortua, eta gure herrian ere badu ordezkartza zabal bat. Martxoaren 19ko galdeketa antolatzea du xede, erabakitzeko eskubidea aldarrikatzetik egikaritzera pasaz.

Eskualdeko herritar ororen bilgune izan nahi du Giltzarriak, erabakitzeko eskubidea, emaitzaren gaineratik, gizarte kohesiorako dagoen tresna egokiena baita. Nolako Euskal Herria nahi dugun erabaki nahi dugu, gure herritik hasita, eskualdearen indarraz, eskualdeko biztanleon iritziaren babesaz.



Udal honek, herritarren ordezkaritza duen heinean, begi onez ikusten du Martxoaren 19ko galdeketa, eta are gehiago, dei egiten die herritar guztiei bertan parte hartzera, iritzia agertzera. Herri bat garelako, erabakitze eskubidea dugulako eta herritarron garaia delako.

Guztion partehartzea ezinbesteko baldintza da erabakitze ariketa bat aurrera eramateko. Guztiok gara giltzarri. Martxoaren 19an, erabaki nahiaren espresio izango gara, ezberdinen arteko topagune, elkarbizitzaren giltzarri.

Europar martxan dabilen trena Euskal Herriko geltokira iritsi da, baita guk gobernatzen dugun herrira ere. Bertara igotzeko gonbitea luzatzen dizuegu herritar guztioi, honako galderaren inguruan zure iritzia ematera:

Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?

Irudikatu dezagun jende zoriontsua herri libre batean.

Bozkatu, zure iritzia jakin nahi dugu!"

4.-MOZIOA: " GERNICA" GERNIKARA

Bakarne Otegui Jauregui Alkateak, " GERNICA" GERNIKARAREN mozioa aurkezten du.

Ondoren testuaren onespena botoetara jartzen da, botazioak honako emaitza aurkezten du:

-Mozioa: aldeko 3 boto.



Horrenbestez bertaratutako zinegotziek aho batez honakoa erabakitzen dute:

BAKARRA: Onartzea ondorengo " GERNICA" GERNIKARAREN mozioa.

" 1937ko maiatzetik ekainera bitartean, Pablo Picasso margolari eta artistak " Guernica" margolana sortu zuen. Lan honek, egun batzuk lehenago, Euskal Herritarren gune kuttun eta esanguratsuenetakoa zen Gernikak Condor Legio naziak Francoren agindupean jasandako bonbardaketa eta sarraskia salatzen du. Beraz, aurten 80 urte betetzen dira, bai bonbardaketatik, baita honen aurkako karraxi artistikoa sortu zenetik ere. Urteurren hau, Gernika zein Euskal Herritarren beste eskaera eta garraxi bat zabaltzeko ere une egokia ikusten dugu: " Guernica" margolana Gernikan kokatu dadila behin betikoz.

Margolana 1937an sortu zen eta Parisko Erakusketa Unibertsalean kokatu zuten. Harrez geroztik mundu guztian ezaguna bilakatu da, giza eskubideen zanpalkuntza, gerraren eta herritarren aurkako jazarpena ozenki salatzen duelako.

Aipatutako artelanak ez du zentzurik Gernika eta bere historiari lotua ez baldin ba dago, hura izan bait zen margolari ezaguna gertatuaren izugarrikeria salatzerantz eraman zuena. Horren jakitun, Gernika eta Euskal Herriak behin baino gehiagotan aldarrikatu izan du, aipatutako margolana Madrilgo Reina Sofia Museoa egon ordez, Gernikan bertan egotea dela egokia.

Behin baina gehiagotan eskari hau luzatu arren, Madrilgo Gobernu ezberdinek, bereziki garraio eta mantentze arrazoi teknikoak aipatuz, " Guernica" bere etxera ekartzera ukatu egin izan dira. Gaur egun, garraio eta mantenurako beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzeko arazorik ez dute Euskal instituzioek eta ez da sinesgarria egiten argudiategi hori mahai gaineratzea. Beste behin ere, Madrileko Gobernuak dituen interes ekonomiko zein politikoak daude " Guernica" Euskal Herrira ez ekartzeko arrazoi nagusien nagusien artean.



Sufrimendu guztien aitortza egingo duen memoria historiko bat eraikitzea ezinbestekoa den honetan, beste behin ere, margolan honek, bonbardaketa jasan behar izan zuen Gernika herrian kokatuta, bere indarra eta salaketaren sakontasuna biderkatu egiten duela aldarrikatu nahi dugu. Eta ezinbestean “Guernica” -k Gernikan egon behar duela. Ondorioz, honako mozio hau aurkezten dugu Ikaztegieta Osoko Udal Batzarrean, bertan eztabaidatu eta onartu dadin.

1.- Udal honek, Gernikako herriaren aurka 1937an egindako sarraskian oinarritutako Picasso-ren “Guernica” margolanaren kokapenik egokiena, Gernika dela adierazten du. Gertaera historikoa, artelana eta herria bera uztartzea funtsezkoa dela adierazten du Udal honek. Ondorioz, “Guernica” Gernikara ekartzeko eskaera formala luzatzen dio Espainiko Gobernuari eta Kultura Ministeritzari.

2.- Udal honek, Eusko Jaurlaritzari dei egiten dio, Picassoren Guernica margolana Gernikan kokatu ahal izateko beharrezkoak diren urrats instituzionalak eman ditzan. Baita ere, margolan hori Gernikan kokatzeko beharrezkoak diren azpiegitura eta egokitzapen lanetan laguntzeko ere.

3.- Udal honek bere egiten du Picassok margolanarekin mundu guztira zabaltzeko nahi izan zuen salaketa, alegia, herrien zein giza eskubideen aurkako zapalketa, gerra eta genozidioaren salaketarik ozenenarekin.

4.- Udal honek, erabaki honen berri emango die, Eusko Jaurlaritzari, Espainiako Gobernua eta Kultura Ministeritzari.”

5.-MOZIOA: ALTSASUREKIN ELKARTASUNA

Bakarne Otegui Jauregui Alkateak, ALTSASUREKIN ELKARTASUNA ren mozioa aurkezten du.



Ondoren testuaren onespena botoetara jartzen da, botazioak honako emaitza aurkezten du:

-Mozioa: aldeko 3 boto.

Horrenbestez bertaratutako zinegotziek aho batez honakoa erabakitzen dute:

BAKARRA: Onartzea ondorengo "ALTSASUREKIN ELKARTASUNA"ren mozioa

" Idazki hau sinatzen dugunok zera plazaratu nahi dugu: urriaren 14an Altsasun jazotako gertakariak deitoratzen ditugun arren, Fiskaltzak eta Entzutegi Nazionaleko Instrukzio Epaitegi Zentralak izandako jarrerarekin bat ez gatozela, aipatu gertakari horiek terrorismo delitu direla ulertzeagatik eta atxilotu eta auzipetutako zortzi pertsonetariko batzuei behin behineko neurri gisa baldintza-gabeko badaezpadako espetxeratzea inposatu izanagatik. Erabaki hauek ezegokitzat eta neurrigabetzat jotzen ditugu.

Zigor Kodearen 573. artikuluari helduz Altsasun gertatutakoa terrorismo delitua dela ulertzeak, espainiar ordenamendu juridikoak Zigor Kodea interpretatu eta aplikatzeko ezarritako irizpideen kontra egiten du. Zentzugabekeria da epaitzeko edota legeak egiteko beharrezkoa den sen on minimoa daukan edozein behatzaile objektibo eta inpartzialentzat egitate horiek terrorismo delitu kalifikatzea.

Auzipetze autoa irakurri ezkerro agerikoa da erabaki horrek ez dituela prozesu penaletan parte hartzen duten funtzionario eta autoritateek errespetatu behar dituzten objektibotasun eta inpartzialtasun printzipioak errespetatzen, ez dira eta ustezko erruztatuentzako kaltegarri edo mesedegarriak izan daitezkeen baldintza guztiak era argian jasotzen ez eta aintzakotzat hartzen (Auziperatze Kriminaleko Legearen 2. artikulua).



Gertaerei Zigor Kodearen 573. artikulua aplikagarri zaiela erabakitzerakoan, zalantzan jartzen dugun auto hau susmoetan oinarritzen da batez ere, eta ez arrazoizko aztarnetan. Horren adibide izan daiteke izaera penala eduki dezaketen egitateak izendatzerako orduan autoak “ahalera” aditz aldia erabiltzea (“egon litezke”, “parte hartu lezakete”, etab.), susmoak baino zerbait gehiago direla frogatu dezakeen zerbaiti erreferentzia bat bera ere ez egin barik. Autoak ez ditu beste bertsio posibleak kontuan hartzen. Adibidez, ez du posible ikusten gertatutakoa gauean eman daitekeen taberna borroka edo gatazkatzat jotzea, eta ez, egiten duen legez, “Alde Hemendik” mugimendu edo kanpainarekin zerikusia daukan gertaeratzat. Gure aburuz, gaur egun, giza arrazoimena era neurrigabean behartzen edo bortxatzen bada bakarrik jar daiteke horrelako gertaera bat terrorismoarekin harremanetan.

Zigor prezesua modu horretan izapidatzea ez zaio Zuzenbidezko estatu bati egokitzen, hain zuzen ere erabili diren lege interpretazio eta aplikazio irizpideak urruti daude zuzentasunetik. Horregatik, gizarte zibileko kide garen neurrian gure desadostasun kritiko argia agertzera behartuta gaude. Jarrera bortitz errefusgarriari ezin zaie erantzun erabat neurrigabe diren erabakiekin epaile eta auzitegien aldetik. Halako eraso bortitzei irakurketa interesatua eman izan zaie, gaiaren azterketa judiziala Entzutegi Nazionalaren jardura eremura eramateko intentzioarekin terrorismotzat joz. Horrek, berez, epaile naturalaren printzipioari kalte egiten dio. Hots, Nafarroako epaile eta auzitegiei dagokie bere lurralde eremuan gertatutako auziak ebaztea, eta ez Entzutegi Nazionalari. “Justiziaren” zona galtze adibide berri tamalgarri baten aurrean gaude. Eta horrek jarduketan dabilen organo judizialaren deslegitimazioa dakar, gizarte demokratiko batean nahitaezkoak behar luketen eskakizunetatik hura urrunduz. Egoera hau “etsaiaren zuzenbide penalaren” adibide berri bat da. Neurrigabeko erantzuna eman zaie inola ere aurreikusi gabeko egitate batzuei, soilik ulergarriak gertatutako ingurumariari erreparatuta, hots, taberna jakin bat,



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2017KO MARTXOAREN 8KO EZ OHIKO UDALBATZA

gabeko ordu txikietan, eta behar bada baldintza fisikorik egokienetan ez zegoen jendea tarteko.

Horiek horrela, ikuturiko persona guztiekiko gure solidaritatea agertu nahi dugu, hala nola familiekin, Altsasuko hiritarrokkin eta baita bere Udalarekin ere. Altsasuko hiritarrek eta baita bere Udalak ere bake eta bizikidetzaren aldeko konpromisoak agertu dituzte ezbairik gabe, inoz gertatu behar ez ziren egitate hauen bitartez moztuak izan direlarik.

Ikuspuntu juridikotik begiratuta ere kritikatzeko modukoa da epaitegien interbentzio hau. Izan ere ez da posible herritarren eskubideen berme izan behar duten Epaitegiak eurak izatea haien gutxiesle. Halako jokabideek instituzio demokratikoen erantzun argia merezi dute. Horregatik zuzentzen gatzaizkie EAE, Lurralde eta Udaletako agintariei, argi eta garbi adierazi ditzaten bai gertakari hauen gaineko balorazioa bai herritarrekiko, biktimekiko zein Altsasuko udalarekiko elkartasuna. Izan ere, hau guztia gizarte demokratikoen eta Zuzenbide Estatuaren printzipioekin eta funtzionamenduarekin bat ez datorren aldrebeskeria hutsa baino ez baita.”

Horrenbestez, arratsaldeko 10:15 direnean, Alkateak bilkura amaitutzat eman du. Eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut alkatearen oniritziarekin.

Ikaztegietan 2017ko martxoaren 3an

O.I.
ALKATEA,



Idazkaria,

